


horrelakoak ginen

San Pedroko "Dionisio Inda" herri fototekatik eskuratutako argazkia.



Aizkolarien moduko bakailo hauek, 70 hamarkadan Poblado aldean ibiltzen zen "Dollar" aire naturalean lehortzen ari dira. Arrain gatzatu kortinaren aurrean, garaiko arrantzu-mix janzkera doterearekin, Eduardo Gestido eta Angeli daude kamarari irripar sanoz begira. Lehor-lekua berriz, garai batean Pasagasta deitutako, eta urte askotan sagardotegia ere izandako Mirasol baserria dugu.

Iraganari begirada

GOIZEKO 6.30 ETAN IGERI EGITEN

Jakina den bezala aurreko mende hasieran (XX. mendea) neska eta mutilen arteko harremanak ez ziren gaur egun bezalakoak. Ia dena zen pekatu garai hartan: eskolan bereiztuta zeuden, kristau ikasbidean bereiztuta, jolasean bereiztuta...

90 urte baino gehiago dituen amona sanjuandar batek kontutako hurrengo pasadizoak argi erakusten digu eskolak eta elizak irakatsitako balore eta portabideak neska eta mutilengan izaten zuten eragina. Horrela, mutilek bainu trajean ez ikusteko, san juango neskak goizeko 6,30 edo 7 etan joaten ziren igeri egitera. **BORDAUNDI**

Erreportajea: Victor Hugoren jaiotzaren bigarren mendeurrena

Pasaiaiko herri-aldizkaria

boranako



2002ko martxo

25 zenb.

Multi
ESKANTZAK
MULTIOPTICAS

Ba al dakizu zer dagoen begirada eder baten atzean?...
Eta aurrean?

BONARDI AIREKO ARMAZOI BERRIAK

49 €
8.153 pta.

*Eskaintza baliozkoa 2022/02/28 arte



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

MULTIOPTICAS

Argitartzaileak:
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua: SS-42/2000
ISSN: 1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Koordinatzaileak
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
Hizkuntza arduraduna
Izaskun Aldezabal
Diseinua
Txema Garzia Urbina
Maketazioa
Urko Etxebeste
Publizitatea
Eñaut Gantxegi TEL.: 689 78 33 17
Azala
Borja Arratibel
Kolaboratzaileak
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.

laburrean

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaia herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaia Udala



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Salla



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua

ESKALANTEGI 48-AN
OBREN ONDORIOZ:
GAUDE, PROBISIONALKI.
BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MILATZAREN LEHENA 3. 30110 PASAI ANTZO. GIPUZKOA
943 530888.

Loradenda MAIALEN
Ezkontzatarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTZO

IPARRA taberna
M I E
H
Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTZO

4-5. EZ ZAITEZ MOZTU

6-12. BARRUTIZ BARRUTI

13. OROKORREAN Oarsoaldeko euskarazko hedabideen plan estrategikoa


16. KALE-INKESTA Herriko zein txoko duzu gustukoen?

18. ERREPORTAJEA Victor Hugoren jaiotzaren bigarren mendeurrena

22. AGENDA

23. KRITIKAK

24. HORRELA KOAK GINEN



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker gracias a ti

Euskara San Juanen

Non du euskarak etorkizun garbiagoa, Antxon ala San Juanen? (erantzuna idazki honen bukaeran aurkituko duzu)

Urte berriarekin batera, euskararen erabilera eskasa salatuz, horma-irudiak agertu dira Donibaneko kalean, Batasuna alderdiak sinatuta. Jendeak jakin ba omen daki euskaraz, hamarretik zortzik, baina erabili, hamarretik bik bakarrik erabiltzen omen du. Nire ustez, bete-betean asmatu du Batasunak kritika hori egiterakoan. Oso kezagarria iruditu izan zait beti euskaldunen arteko gaztelaniazko solasa. Euskaldunok ez badugu euskaraz egiten geure artean, nor arraiok egingo du bada? Eta, gainera, zertarako urte luzeetako lan, aldarrikapen eta borrokak?

Dena dela, horma-irudiaren azken zatiak, ezin dut ukatu, txunditurik utzi nau: «Erabiltzen ez diren hizkuntzak hil egiten dira. Eta hik, hiltzaile izan nahi al duk?» Zabarra eta utzia denari hiltzaile deitzea ez dut uste oso zuzena denik, ez eta oso didaktikoa ere, inondik inora. Helburua herritarren kontzientzia akuilatuz euskara gehiago erabiltzea izan baldin bada, ez dakit bada ez ote zuen kontrakorik lortu!

Kanpotik San Juanera etorritako euskaldunoi betidanik oso harrigarria egin zaigu ikustea teoriarik hain euskalduna den herrian zein gutxi erabiltzen den euskara kalean, haur, gazte eta zaharren artean, dendetan, tabernetan... eta zein herdoilduta dagoen gure hizkuntza sanjuandar askoren mingainetan. Aldi berean, ordea, inork ez du dudarik egiten bere euskalduntasunaz!

Hiru urte pasatu dira Pasaiko idazlerik ospetsuenak San Juango euskararen egoeraz honakoak esan zituenetik:

«...gune erdalduneko euskaldunek euskara egiten dute ahal duten guztian, ahal duten guztiekin eta gai guztietan. Eta hortik sortzen dira gune euskaldunetan sortzen ez diren ekimenak: irrati bat, aldizkaria, kontzertuak, talde euskaltzaleak... Beren jardun euskalduna maila guztietara eramaten dute. Herri euskaldunetan jendea lasai dago, erlajatuta, «ofizialki euskalduna» delako. Hori nik ongi asko ikusten dut nire herrian. San Juan betidanik euskalduna, oso nortasun handikoa, harroa, Victor Hugo, eraikuntzen polita, arrauna... gero eta euskara txarragoarekin oro har. Antxon, berriz, euskaldunak gutxiengo izanik ere, goraka datoz eta aldi berean oso antolatuta: euskaltegiak, elkarte euskaltzaleak, D matrikulazio tasa handia... Antxon etorkizuna bermatuagoa dago San Juanen baino. Gune euskaldunetan, euskaldunak lasai bizi direnez, ez dute behar ez euskara-elkarerik, ez irratarik. Eta egun triste batean konturatuko dira dena behar dutela, epelean egosi dituztelako. Ur irakinetan bizi behar duen apoak ordea borroka egiten du bere bizia salbatzeko... Batzuetan, egoeraren bortitzak ematen digu bizia.» (Koldo Izagirre)

Berandu baino lehen, ez al da garaia iritsi San Juanen euskararen erabilera bultzatu nahi dugunok elkartu eta zer edo zer egiten hasteko?

Imanol Irizar

San Pedroko Elizako pretila

San Pedroko Elizako pretila galtzeak, ez du ekarri bakarrik San Pedroko ondare baliotsuenaren zati bat galtzea; horrekin batera, elizaren eraikuntza berak eta pretil honen harriek, San Pedroko antzinako bizilagunei buru hauste handiak eragin dizkiete. Hain zuzen ere, horrexegatik ez dator bat garai hartan beste herrietan eraiki ziren elizen forma eta dimentsioekin; beste eliza hauetan argia eta itzalaren arteko kontrastea zegoen, batzuetan, baita gehiegizko hornidura ere... Ez du Gipuzkoako barrokismoaren ezaugarriak erakusten, alegia, Loiolako S. Ignazio Basilikak edota Donostiako Santa Maria elizak duten eskultura mailako aberastasuna nahiz bilduma armoniatsuak. Bere antzinatasunak badu, ordea, balio erantsi bat: garai hartako San Pedroko bizilagunen esfortzu eta ekinarekin eraiki zen.

Eskuartera iritsi zaizkigun dokumentuetan ageri denez, 1732an hasi ziren eraikitzen eliza, eta 1774an bukatu zuten. 42 urteko tarte horretan 5 arkitekto behar izan zirela ere jakin dugu dokumentu horiei esker: Juan de Sobreville, Jose de Lizardi, Francisco de Ibero, Martin de Carrera, eta azkenik, azken honen seme Manuel Martin. Arkitekto jantzi hauetako bakoitza, elizaren dimentsioak eta dekorazioa murriztuz joan zen uneko baliabide ekonomikoetara egokitzeko. Obrak aurrera egin ahala, diru gehiago behar zen, eta diru gehiago behar izanik, moldaketa gehiago egin behar ziren. Izan ere, obraren gastuak San Pedroko bizilagunen (garai hartan urrien) poltsikotik ordaintzen ziren, eta ez Donostiako kontzejutik –zeinen baitan zen San Pedro orduan– ez eta Cabildo Catedralciorengandik ere.

Hain zen handia beharra, gaur egun hilerrian kokaturik dagoen Antzinako Erdi Aroko Elizako harriak baliatu behar izan zituztela. Hala, gaur egun, eliza horretatik bi arkupe baino ez zaizkigu geratzen, Pasaian dirauten ondare zaharrenak hauek. Hauen data zehatza ezin da zehatz-mehatz jakin, baina euretako bat, dituen ezaugarri estilistikoengatik, estilo erromanikokoa dela esan daiteke (hilerriaren horman itsuturik), eta bestea estilo gotikokoa (gaur egungo hilerriaren atea). San Pedroko bizilagunak, antzinako eliza hau birindu beharrean aurkitu ziren egun dugun eliza eraiki ahal izateko.


Gure antzinako bizilagunek egindako esfortzuak ez du merezi pretil hauek desagerrarazterakoan erakutsi duten begirune eskasa.

Estibaliz Gonzalez Dios

ez zaitenez moztu

ez zaitenez moztu

25 aldiz Brankan




Hona hemen Borja Arratibel sanpedrotarrak Branka Pasaiko herri-aldizkariaren 25. urteurrenerako prestatu duen azal edo portada berezia. Bi urte eta lau hilabete daramatzagu Pasaiko kaleetan gertatzen direnak eta gertatuko direnak zuei helarazten, horiek guztiak 25 Branka desberdinetan iritsi zaizkizularik etxera, tabernara, lantegira...

Guri dagokigunez, indar sobera dugu hilabetez-hilabete euskararen aldeko konpromezu honi eusteko, zu hortxe, bestaldean zaitugularen esperantzarekin. Biba zuek!

lehiaketa irabazleak

Aurreko hilabeteko brankan egiten genizuen galderaren inguruan asmatzaileen artean Aitor Roca izeneko brankazaleak eramango du saria. Galderak, Victor Hugo olerkaria zein urtetan jaio zenaren inguruan zatan, eta erantzuna hauxe: 1802 urtean. Irakurle askok eman duzue erantzun zuzena, baina asmatzaileen artean zozketa egin ondoren, hilabete honetako sariaren irabazlea aipatu Aitor Roca sanjuandarra izan da.

Beraz, zuretzat izango da ELKARLANEAN argitaletxeak eskaintzen duen saria, oraingoan Xabier Montoia idazlearen 'Baina bihotzak dio' elaberria izango delarik. Beraz, zorionak Aitor eta erne jarraian datorren hilabete honetako galderari.



lehiaketa galdera

Hilabete honetako galdera hauxe da:

Zenbat itsaslami edo sirena azaltzen dira Pasaiko armarrarian?

Erantzunak horrela helarazi diezaizkigukezue:

e-postaz: branka@euskalnet.net

postaz: branka pasaiko herri aldizkaria, eskalantegi 38 behea, 20110, pasaia
telefonoz: 943 341 045ra deituaz

lehiaketa saria

Honatz hilabete honetako erantzun irabazleak eramango duen liburuaren erreseina

Izenburua: **Ortzadarra sutan**. Egilea: **Fernando Morillo**. Bilduma: **Literatura 218**. Orriak: **260**. Data: **2002ko martxoa**. Argitaletxea: **ELKARLANEAN**.

Igartza Saria irabazi zuen Fernando Morillok hirugarren deialdian, eta Beasaingo Udalak, CAFek eta Elkarrek egile gazteentzat antolatutako beka honen laguntzari esker idatzi du idazle azpeitiarrak helduentzako bere lehen eleberria.

Bizitzaren eskolari eta esanahiari buruzko eleberria da, nolabait, Ortzadarra sutan. Izan ere, bizitzen ikastea ez da samurra inorentzat: ez dago inon argibiderik, ez erreklamazio-orririk. Eleberri honetako protagonistak -18 urteko lau neska eta beste lau mutil- gogor eta tematsu ahaleginduko dira, lagunarteko solasean nahiz parrandan, bizitzaren eskola horretako ikasgaiak bereganatzen: jakin-minaren irrika, sexu-jolasen saltsak, poz neurgaitzak eta desilusiorik latzenak. Handik 15 urtera, berriz, telefono-dei bitxi batek berritako elkartzeko gonbita egingo die guztiak. Dagoeneko ez dira orduko berak, hala ere: galdua dute elkarrekiko kontaktua, galdua gaztetako bizi-grina. Nor bere bakardadearen oskolean daude bilduta gehienak, eta errezeloz begiratzen diote iragana oroitarazten dien deialdi horri: nork, zertarako, zergatik...?

Bi hari, bi garai. Puzzle erraldoi baten moduan hariikatuko dira sentimenduen dantzak eta giza harremanen nahasteak, pixkanaka ortzadarraren kolore guztiak azaldu arte. Bi hari, bi garai, baina patu bakarra, bihotzak zulatuz eta ametsak astinduz bizitzaren mezu saihestezina gogoratzen datorrena.

Fernando Morillo (Azpeitia, 1974). Batetik filosofia eta bestetik fisika ikasi ditu UNEDen, etxetik. Aldi berean, komunikabide askotan plazaratu izan ditu bere kolaborazioak eta sariketa ugari bereganatu, hainbat alorretan: CAF-Elhuyar zientzia-dibulgazio saria, poesia edo gutun lehiaketa zenbait, ipuin-sariketa garrantzitsuak...

Orain arte hiru eleberri kaleratu ditu gazteentzat: Bila nazatela, Sexu egunsentiak, Bihotz nahasiak, eta saiakera-liburu bat: Erraldoi herrena.



donibane

Itsas Mendiko berrikuntzak

Itsas Mendi Elkarteko zuzendaritza-taldeak aldaketa esanguratsuak izango ditu aurki. Hurrengo urteetan egoitzaren ardura hartuko duen lan-taldea aldatzeaz gainera, jarduera berriak eraman beharko dituzte aurrera. Azken bi urteetan zuzendaritza-lanetan aritutako lan-taldek ekintza eta aldaketa ugari burutu ditu, eta aurrerantzean ere lan-talde berriak bide berek jarraitzea espero dute. Elkartean egin diren aldaketen artean, egoitza beraren berrikuntza, altzarien berriztapena, ikurrinaren konponketa, administrazio osoa eguneratzea, eta giltzen ordezko txartel-sistema berria aipa daitezke, besteak beste. Elkartearen zerbitzu guztiak erabiltzen dituzten bazkideen kontrol zehatza izateko, eta halaber, giltzekin sortzen ziren arazoak saihesteko ezarri da txartel-sistema berria. Hemendik aurrera, elkartean sartzeko txartel bana izango du bazkide bakoitzak, eta oro har egoitzan gertatzen den guztiaren kontrola izatea ahalbidetzen du sistema berri honek. "Elkartean zein bazkide sartu eta ateratzen den jakiteaz gainera, bertako azpiegitura guztiak nork erabili dituen eta arazoren bat sortuz gero azalpenak zeini eskatu behar zaizkion jakin ahal izango dugu txartel-sistema honen bidez" dio Lurdes de Castillo zuzendari ohiak.

Sistema berria ezartzeaz gainera, Elkartean dituen 500 in-

guru bazkideren datu pertsonalak eguneratzeko aprobetxatu dute. Halaber, oraindik txartela jaso ez duten bazkideak Itsas Menditik pasa daitezen deia igorri nahi dute lerro hauen bidez, edo zalantzaren bat izanez gero zuzenean Lurdes Castillo-ren 699 45 99 95 telefono-zenbakira hots egin daiteke.

GAINONTZEKO EKIMENAK

Zuzendaritza berria dela eta, Elkartean ekimen berriak jarri nahi ditu martxan. Batzuk, esaterako, abian jarri dira jada, Mendi taldea eta Kultur jardueren taldea, esaterako. Elkartean, halaber, bestelako ekimenak bultzatu nahi ditu herrian, bai-



na hauek antolatzeke gogoan duten lagunak behar dira. Une honetan geldirik dagoen ekimena liburutegiari dagokiona da, nahiz eta Udalarekin izandako bileren ostean laster honi irtenbidea ematea espero duen Itsas Mendiko zuzendaritzak.

LUISMA LABOA

Motoren gaiarekin jarraituz...

Azkeneko Brankako bi zenbakietan motoren gaiak hitz egin dugunez zenbaki honetan ere gaia nola dagoen azaltzea pentsatu genuen eta horretarako hainbat pertsonekin hitz egin dugu.

Irakurleok jakingo duzue, San Pedro- Donibane motora zerbitzuak aldaketa ugari jasan ditu azken asteotan eta une honetan, zerbitzu hori Berrota-



Arizabalo Jauregia.

eta beraien nahia apirilaren 11erako zerbitzua emana egotea dela."

Bi zerbitzuak lehiaketara aterako dituztenez Berrotaran familia eta udaletxearekin harremanetan jarri gara eta Berrotaran familiakoek ahal badute bi zerbitzuak eskeiniko dituztela esan digute. Udaletxetik, berriz, lehiaketako baldintzak oraindik aztertu gabe dituztela baina bi zerbitzuak martxan mantentzeko konpromezua hartzen dutela esan digute.

Une honetan egoera horrela dago, ea Brankako hurrengo

zenbakirako egoera normaldu den.

Arizabalo Jauregia obretan

San Juan kaleetik pasatzen den edonork ikus dezaken bezala Arizabalo jauregia andamioz josisia daukagu. Obra hau Arizabalo jauregiak jasango duen eraberritzearen lehenengo fasea da, eta bertan Eraikinaren teilatua eta fatxadak berritzeari ekin

dio udalak. Aipatutako lehenengo fase honen kostua 450.076 eurotako (75.385.466 pzt) izango da eta uztaile inguruan bukatua egon beharko luke. Hurrengo fase baterako gelditzen da kanpoko leiho eta barruan egin beharreko distribuzio eta egokitze guztiak

Udalak, lokal eta pisu ezberdinetan sakabanatuta dituen zerbitzu ezberdinak zentralizatu nahi ditu. Horrela, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Obra eta Zerbitzuak kenduta, beste guztiak eraikin honetan bilduko dira.

komikia Aitor Puy



san pedro

**ESTIMATUBA DAGO.
25 ALE,
ETA BESTE HAINBAT
HERRIA KONPONTZEN...
ZORIONAK!**



BRANKAKO 25 alea dugu hau. Iada bi urte pasa dira Pasaia lehen aldizkari euskalduna sortu zenetik. Hainbat aldaketa eman dira Pasaian, baita San Pedron ere. Herriaren itxura asko aldatu da: Herriko plazak izaera berria hartu du. Errotonda berria... Txana ia peatonala dugu, baita sarkofago eta "Cascada de luz y color" gunea ere. Adokinak edozein momentutan igo eta jeitsi egiten dira, eta jende asko uhin baldosistikoa barneratu ote dugun beldur da...

Herria hartzen ari den itxura berri honetan, eta herritar gehienek ezer gutxi jakin gabe etorkizunean hartu dezakenaren beste hartan, BRANKAK badu zer esan: herriko gertakarien berri ematen du eta garai batetan nolakoak ginen ere gogorarazten laguntzen digu. Herriko taberna eta dendatan hilabetero gure berri izaten jarraituko duzue. Zer idatzi beti erreza ez den arren, enbidoa jaso dugu, eta gure erantzuna: 25 GEHIAGO izan da. Hala ere, letra eta irudi partida honetan, edozein bikote eta gizabanakok hartu dezake parte. Anima zaitetzte.

Pobladoko iturri intermitente-a

Francisco Francok Pobladoko etxeetako giltzak eman zitueneko 50 urte betezen diren honetan, bertako iturri ahaztuari uraren konexioa ematearen erabakia hartu du Pasaia Udalak.



Obra orokorrak Pobladoa goitik behera zeharkatzen duten teilaturik gabeko aurkupedun eskaileretan ematen ari dira. Bertan, eskailerak, barandak eta aulkiak jarri eta konpontzeaz gain, iturriari etxeetako ura entxufatzeko fase berezi batean aurkitzen da udaleko langile talde bat. Hauen esanetan, obraren bukaera eta uraren berpizkundea hilabete pare baten barruan gertatuko dira.

Hala ere, hilabeteke, eta gehienetan, urte askotako ur jarri eza ezagutu du mende erdia betetzen duen Pobladoko iturri honek.

Jakin izan dugunez, iturri ezin dotoreagoa jarri omen zuten 1952ko etxe-alde inaugurazio egun haietan: leoi buruhaundidun pitorro batek ura barra barra ematen zuen, zeru-urdin eta txuri kolorezko mosaiko-baldosa lirainez inguratutako arkuan. Baina, handik oso denbora gutxira, zonaldeko ume eta gazte irredentoez iturri polita puskatu zuten. Horrela ibili zen urteetan iturria urik eman gabe, eta etxeetako

mozten zenean, Pobladoarrak Salbiora, Torrera, Herrerara, edota Faro-beheko Saltoko iturrira joaten ziren likidu gardenaren bila.

Urte batzuk geroxeago, dexente kasu honetan, 1971ean ezarri zuten Kobra suge pitorro berria iturrian, eta hemendik aurrera, urak "hoy en ocho" tik- ra aldizkako joan etorri etengabeak egiteari ekin zion, herritarrak ur jarria bezperan eten egiten zela konturatzen ziren bitartean.

1997an, Udalak suge pitorroa lapurtu eta San Pedroko plazan eraikitzen ari zen iturrian kolokatu



zuen: marmitak, aho eta beste hainbat gauza nola kolokatu behar ziren asko aztertu gabe, (dirudienez, laister jetsi edo aldatu egingo dute iturriaren aska).

Beraz, bost urte hauetan, eta lehenagoko gehienetan, Pobladoko zonaldea kale lehorte gordinean bizi izan da, duela pare bat urte Salinasko iturri ederra inauguratu zen arte. Espero dezagun Pobladoko iturri berritu honek denboran barna ondo funtzionatzea, eta ezarriko dioten pitorroa polita eta anti-roboa izatea; egarriak eskertuko du.

**jar ezazu
zure
iragarkia
Brankan**

**HAUXE BAI DELA
MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA
San Pedroko Bodegoia**

MUGURUZA ARDOAK
ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak
Urte Berri on!!
Torreatze kalea 8, behe 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

Antxo berri bat

Azken boladan guztion ahotan izan ditugu gure barrutian hirigintza mailan egiten ari den lan edo obrak amaitezinak direla. Lan hauen amaiera epe eta bete behar dituzten funtzioen inguruan egon diren eztabaidetatik at, jarraian doakizuen artiluluak erreflexio batetara bultzatu nahi zaituzte: zenbat aldatuko den antxo datozen urtetan. Amestu dezagun nolakoa izango den Antxo, demagun, hamar urte barru.

'TOPOA' ETA GURE ZUMARDIA

1998 urtean topo geltoki berria martxan jarri zen, horrek antxotareki abantaila itzelak ekarri zizkien: dagoeneko ez zegoen geltoki zaharrera iristeko eskailera malda izugarri hori igo beharrik, ezindu eta pertsona helduentzako abantaila handia. 1999an berriz Gure Zumardi berriari ongi-etorria eman genion antxotarrok, denbora dexente iraun zuten lan nekezen ondoren. Begibistakoak diren lan hauez gain, beste lan garrantzitsu batzuk ere burutu izan dira gure barrutian: lurrazpiko ur hodi sare berria osatzen joan da (ordudanik euri zaparraden ondorioz ez da uholderik izan antxon), teknologia

berriak etxean jasotzeko kableatu sare berriak eraikitzen joan dira...Gainera, kasko barruan zeuden enpresak pixkanaka hauen iharduerarako aproposagoak diren industrialdetara aldatuko dituzte produkzio tokiak, hala, gure herrian Luzuriagarekin batera historikoak izan diren Beissier eta Lafforte enpresak Errenteria-Oreteran dagoen Txirrita-Maleo industrialdera aldatze lanetan daude.

Bazirudien lan edo obra hauek hirigintza egokipen isolatuak zirela soilik, aitzitik, eraberritze plan oso batetan kokatu behar ditugu hauek guztiak, jarraipena izango

dutenak.

LUZURIAGA

Zalantzarik gabe etorkizunean etorriko diren aldaketetatik Luzuriagakoa izango da haundiena, bai diru inbertsio mailari dagokionez baita suposatuko duen aldaketa urbanistikoari so eginez ere. Gure barrutiak gaur egun 5.500 biztanle inguru baditu, etxe berrien eraikitze honek 1.500 pertsonen etorrera suposatuko du, kontuan hartuz antxo 'berrira' joango den biztanle asko 'zaharrekoak' izango direla. Bertan baliteke Osasun Zentru (lehen Anbulategi) berria eraikitzea ere, gaur egungoak dituen gabeziak ahazteko asmotan. Gainera, etxebizitza hauen eraikitzeak

zerbitzu berrien etorrera ere suposatuko du: tabernak, dendak, markatal guneak...Etxe hauen %50 alokairuan aterako da, eta kopuru osotik %50ean ere Pasaia biztanleek beteko dituzte, beste %50 eskualdeko pertsonak beteko dituztelarik (donostiarrek eskaintza honetatik at gelditzen dira).

Horrela, lehen Antxon iparorratza soberan bazegoen ere, orain berreskuratu beharko dugu, Antxok iparralde(gaur egungo kaskoa) eta hegoaldea (Antxo berria) izango baitu.



■ Iñaki Bilbao margolariak Luzuriagari egin zion olioizko koadroa. 'Iñaki Bilbao, pinturak' libururik ateratako irudia.

Muebles
Altzariak

RUIZTEGUI, s.a.

**MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA**

Nafarroa hiribidea, 15
Tfnok.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTZO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO
MENGATZ
ETA
BARTA
ZERBITZUA

1934

Gure Zumardia 27-20110-Pasai (Gipuzkoa)

AMIO
Taberna

1934

Gure Zumardia 27-20110-Pasai (Gipuzkoa)

Etxe eraikitze honekin bi proiektu haundiren berri eman beharra dago: batetik antxo hegoaldera sarbidea izango duen eta ekialdetik barrutia parez-pare zeharkatuko duen autobidea (A-8 autopista eta N-I errepidearen arteko lotura izango dena finean), eta Altxa eta Molinao auzoak bereizten dituen Auditiz-Akular lur sailean Donostiako Udalak eraikiko dituen 4.000 etxebizitzak.

GAUR EGUNGO KASKOAN, ZER?

Gaur egungo Antxon ere aldaketak izango ditugu. Azokako proiektua egunero hazten ari dela ikusten dugu, barrutirako Kultur ekipamendu oso garrantzitsua izango dena. Aipatzekoa da ere Biteri plaza ere (frontoia) desagertu egingo dela, bertan etxebizitzak eraikitzeko, eta nola ez,

kableatu eta ur-hodi berrien jartze lanek jarraituko dute. Aipatzekoak dira ere N-I errepidearen inguruan egin nahi diren aldaketak, Antxok Oreteran egin duten antzeko Boulevard bat izan dezan, eta beste hainbat eta hainbat proiektu, beti ere Pasaia mailan egiten ari diren beste batzurekin uztartuko direnak.

ZALANTZAK

Hainbat arlotan sortu daitezkeen zalantzak ere aipatzea ez dago soberan, batez ere aparkaleku eta kirol-guneei buruz hitzegiten denean. Hauen inguruan ez dago egitasmo zehatzik, ahalik eta azkarren konpondu beharreko arazoak direnaren konpromezua badago ere.

Bertso-afari itze- la

Aurten ere Arnasa Euskara Elkartek bertso saio aparta prestatu du bertsozale antxotarren belarriak gozagoz eginda uzteko datorren Apirilaren 12an, ostirala. Aurtengoan, Anjel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio izango dira hontaz eta hartaz kantuan ariko direnak, bertan bilduko direnek, zalantzarik gabe, afaloste ezin hobea izango dutelarik.

Bertso-afaria Pitxi-Txulo jatetxe-
an ospatuko da 21:00tatik aurrera, eta orotara 18 euro ordaindu beharko du han izan nahi duenak (afaria eta bertso saioa barne). Txartelak Kamio tabernan lortu ditzakezue.

Alberto Martine- zen garaipena

Euskaltel-Euskadi txirindulari taldeko Alberto Martinez antxotarrak garaipen handia lortu zuen pasa den Aste Santuan Frantziako errepideak izerdiz busti zituen Nazioarteko Kriterium-ean.

Lehenengo etapan beste hainbat eta hainbat txirindularirekin batera sprintean iritsi bazen ere, bigarren-
an egindako lanak eman zion garaipena Albertori, batez ere arratsaldean korritu zen erlojupekoak. Goizeko etapan ezer berezirik gertatu ez bazen ere, arratsaldekoan duen guttia eman behar izan zuen Euskaltel-Euskadi taldean lau urte daramatzan txirindulariak. Hala, aipatu arratsaldeko erlojupekoan 2. gelditu zen Alberto, Jan Voigt etapa irabazletik segundu bakar batetara. Horrela, sailkapen orokorren garaipena ekarri zion erlojupekoan egindako lanak, segundo batetara Lance Armstrong estatubatuarra bigarren gelditu zelarik.

Torturaren aur- kako ekimenak

Pasai Antxoko Torturaren Aurkako Taldeak zenbait ekimen eraman ditu pasa den hilabetetan gure barrutian. Otsailaren 13an (Torturaren Aurkako Eguna) gai hau salatu zuten eginiko zenbait propaganda-jartze eta ekintzekin. Martxoan zehar, TATEk (Torturaren Aurkako Taldea), interlokuzio lan zabal bat burutu du herriko hainbat elkarte eta eragi-

leekin, hauei erakunde honek burutu duen torturarekin bukatzeko 9 puntutako txostena aurkeztu dielarik. Horretaz gain, 9 puntu hauekin atxekimenduak lortzeko, buzoneoak, sinadura bilketak, txarлак antolatu ditu antxoko TATEk. Honetaz gain, talde honek mozio bat auzetatu zuen udalean honen oinarria aipatu 9 puntu horiek zirelarik.

Martxoa, kultu- raz blai

Ezin dugu aipatu gabe utzi zein oparoa izan den martxoa kulturari dagokionean. Hilabetea II Jazzaldiarekin hasten bagenuen ere, Alberto Frias gasteiztarrek eskaini zuen erakusketarekin jarraitu genuen, 'Ama-lurra defenda dezagun' erakusketarekin alegia. Gainera, liburu aurkezpen bat ere izan genuen gurean, 'Beste bat apalerako' olerki liburua-rena alegia, Mikelazulo Errenteria-Oreterako kideen eskutik. Hau guztia gutxi balitz, Iñaki Bilbao margolariaren lan ikusgarriak ere ikusteko aukera izan dugu (oraindik ere lanak erakusgai daude), Pasaia herriko parajeak olio eran landutako koa-droetan isladatuak.

trintxerpe

Hirurogeita hamabost urteko historia

Hirurogeita hamabost urteko historia. Horixe da Trintxerpe Kirol elkarteak 2002 urteko apirilean gaindituko duen marka, eta ez da, ez, marka makala gero.



Urteurrena ospatzeko liburu bat argitaratu du Trintxerpe Kirol elkarteak zuzendaritza batzordeak. Honen esanetan, liburua Trintxerpeko herriari egin nahi dioten omenaldia da eta, nola ez, kirol elkartearen parte hartu duten guztiei. 1927. urtean jaio zenetik gaur arte hamaika izan dira gertatutakoak, hamaika pozaldi eta hamaika atsekabe, eta horiek dira liburu honetan islatu nahi izan dituztenak. Liburu honetan futbolak dauka, zalantzarik gabe, garrantzarik gehien baina bestelako arloek ere badute txorrik: eskubaloia, mahai-tenisa, pilota, Hockeya, mendi taldea... horietan parte hartu duten guztiek eraman baitute Trintxerpeko izena gure mugetatik haratago. Zuzendaitza batzordeak bostehun ale argitaratu ditu eta salgai jarri dute Alai, Busturia, Avenida eta Juanito tabernetan. Salneurria, hemezortzi euro, ez da garestia kontuan hartzen badugu Trintxerpeko historiaren zati handi bat eramango dugula etxera.



Oarso 13, beheka esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.

Bailarako euskarazko hedabideen plan estrategikoa

Oarsoaldeko Hedabideen Batzordeak eskaturik, eta eskualdeko lau udalek beharrezkoa iritzirik, Ikertalde ikerketa enpresa euskarazko hedabide edo komunikabideen etorkizunerako plan estrategikoa egiten ari da otsaila hasiera ezgeroztik.

Komunikabideen alorrean dagoen lehiakortasuna oso zorrotza dela denok dakigu, eta badakigu, halaber, orain duenaz haratago, zer nolako eragina izango duen alor honek etorkizun hurbilean. Informazioaren gizarlean euskarak punta-puntan egon beharra dauka iraun nahi badu, behintzat, eta hori da Oarsoaldeko euskarazko aldizkari, telebista eta irratiek duten erronka.

Plan estrategikoaren bitartez erronka bikoitzari egon nahi zaio aurre. Batetik, euskara etorkizuneko gizarlean lehen lerroan izatea eta bestea hedabideen sektorea sendotuz ahalik eta egokien antolatzea. Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren hedabideen gunea sortu arte eskualdeko komunikabideak bakoitza bere aldetik ibili dira, nahiz eta elkarlanerako saioak egin dituzten. Plan berriaren bitartez euren burua antolatzeko erarik egokiena zein den, zein izaera juridikorekin, zein funtzionamendu eta norabiderekin aritu behar duten zehaztu nahi da. Udalek eurekiko zein politika eraman beharko duten eta honelako kontuak aztertuko ditu ere planak.



Egun Oarsoaldean bost hedabide dira euskaraz lan egiten dutenak: Errenteria-Oreretako Lau Haizetara, Lezoko Orratz!

Eta Pasaiako Branka aldizkariak, Oiartzun irratia eta Oarso telebista. Plan estrategikoa egiteko lanak hiru hilabete iraungo du.

Plana egiteko urratsak eta osagaiak honako hauek izango dira. Batetik sektorearekin lotura duten eta izan dezaketen eragile guztiekin elkarrizketak eta eztabaidak bideratuko dituzte, hedabideak, euskara elkarteak, udalak... Bestetik, merkatu ikerketa bat egingo dute 600 herritarri galdetegi bat erantzuteko eskatuz. Eta azkenik, web orri bat bideratuko dute hainbat adituk eta bestelako eragile batzuek gaiaren inguruko iritzia eman eta ekarpenak egin ditzaten. Honekin batera, Bench marking delakoa ere habian jarriko dute, gure eskualdearentzako eredugarri edo baliagarri izan litezkeen esperientziak aztertu eta euren gandik ikasteko.

Herriko zein txoko duzuz gustukoen?




1




2




3



4



5




6



7



8



9



10



11



12

1 Jokin Agote.
28 urte. Langabetua.

Ezer taberna. Gustura egoten zarelako lagunekin eta nahi duzuna egiten duzulako.

2 M^a Jesus Salaberria.
Saregilea.

Bonantzatik kalaburza bitarteko paseoa. Egutero egiten dut paseo hori, baina arreglatzeko beharra dauka.

3 Kepa Garciandia.
21 urte. Ikaslea.

Puntetako behekaldea, faro ingurua. Arrantza egiteko asko gustatzen zait, gainera oso gustora egoten naiz bertan.

4 Mikel Arnaez.
52 urte. Irakaslea.

Oso polita iruditzen zait antxoko 'marealta' alde hori guztia, garai batean han bainatzeko aukera eta guzti izaten guelako, gaur egun ez noski.

5 Monika Blanco.
25 urte. Gizarte-hezitzailea.

Ba zer esango nuke, opor egunak, besterik ez.

6 Unai Mayo.
28 urte. Langilea.

Kofradia tabernako balgoia.

7 Roberto Puy.
27 urte. Saltzailea.

Kalaburza itsasotik ikusia.

8 Ana Gonzalez.
32 urte. Administraria.

Ez bada Molinao aldera, Pasaian bertan... ez dut gogorik.

9
Bat ere ez. Dena zikinkeria bat da. Ingurunea nahiko ondo dago, baina ez dugu bat ere zaintzen. Elkarbizitzarako koherentziarik ez dago. Lotsagarria da. Ez dago polita den txokorik Antxon. San Juan eta San Pedro politikak dira beraien sustrai historikoengatik.

10 M^a Cruz Balerdi.
57 urte. Etxeko Andrea.

Bonantza da gustokoen dudana. Babesean dagoen itsasoko pasadizoia delako, lasaia delako eta portuko sarrera ikusten delako.

11 Juan Carlos Mendizabal.
39 urte. Arrain manipulatzailea.

Garai bateko San Pedroko erreka, ura bertaraino iristen zenean eta pabak zuedenean. Hemen egin genituen Torre aldekoek herriko lehen olinpiadak.

12 Arantxa Artola.
42 urte. Langabetua.

Neri asko gustatzen zait, oinezko ibilbide bezala, Trintxerpetik hasi, San Pedrotik pasa eta faroraino doan bide hori.

Pasaia, Victor Hugoren jaiotzaren bigarren mendeurrenean, omenezko ekitaldien hiriburua

Pasa den otsailaren 26an, munduko hainbat lekutan Victor Hugo idazlearen jaiotzaren berrehun urteurrena ospatzen zen egun berean, bere izena duen Pasai Donibaneko etxean, bere jaiotzaren berrehun urteak omentzeko Pasaian gauzatuko den egitaraua aurkeztu zen. Victor Hugok 1843ko udako hainbat egun besterik ez zituen eman gurean. Berak utzitako arrastoek, ordea, Pasaia kanpoan ezagutzera emateko adinako garrantzia izan dute. Orain, herrian antolatutako ekitaldi sortarekin, idazlearen lana gogorarazi nahi da.

Omenaldirako prestatutako kultur egitaraua benetan aberatsa da. Erakusketak, hitzaldiak, argitalpenak, antzezlanak... den-denek izango dute lekua urtean zehar eskainiko den ekitaldi-sortan. Hala ere, komeni da gogoraraztea ez dela hau Pasaian Victor Hugo omentzen den lehendabiziko aldia. 1902ko abuztuaren 14an, idazlearen jaiotzaren lehenengo mendurrenarekin bat, bi frantsesek eta Pasaiako Udalak, Pirinioetako bi aldeetako zenbait elkarte eta pertsonen laguntzaz, orduan 60. zenbakia zuen Pasai Donibaneko etxean olerkariari buruzko museoa sortzea erabaki zuten. Horretarako, arestian aipatu ditugun elkarte nahiz pertsonen orijinal, erreproduzio eta faksimileen bilduma eskaini zuten. Etxe hori, egitaraua egituratzeko garaian oinarritzeko erreferentzia izango da.

AIPAMEN BIOGRAFIKOA

Victor Hugo 1885eko maiatzaren 22an hil zen, 83 urte zituela. Besançon-en jaio zen 1802ko otsailaren 26an. Bere bizitzak eta lanak arrasto sakona utzi dute mundu osoko kulturaren. 9 urte bete berri zituela, amarekin Espainiara bidaiatu zuen, Hugo, bere aita, Bonaparterren jenerala zena, bertan baitzegoen. Hogei urterekin, bere lehenengo olerki-liburua argitaratu zuen. 1830etik 1840ra bitartean zenbait drama garrantzitsu egin zituen. Besteak beste, Hernani (1830), Tximistak eta iluntasuna (1840) edota Pariseko gure dama eleberrri famatua idatzi zituen.

1843ko udan, mendebaldeko Pirinio eskualdera bidaia hasi zuen. Bertan uztailaren 20tik abuztuaren 26ra bitartean izan zen. Bidaia Bordelen hasi ondoren, Baiona, Miarritze, Pasaia, Lezo, Iruñea, Paue Cauterets, Gavarnie eta Luz Ardiden bisitatu zituen. Eskualde geografiko horretan Victor Hugok bere begi boteretsu eta sakonak ezarri zituen eta,


ondorioz, deskribapen erromantikoak gauzatu zituen. Deskribapen horiek Carlos Vacquerie suhiantzat nahiz Leopoldina alabarentzat eginak zeuden. Alaba, Senaren estuarioan itota hil zen, olerkaria bidaia itzuli eta egun gutxi barru. Gertakari horrek Victor Hugoren jardunbidean eragina izan zuen; besteak beste, bidaia-liburua argitaratu gabe gelditu zen. Liburua idazlea hildakoan argitaratu zen.

1852 ezker eta 1885ean hil arte, ezaugarri liberalak eta errepublikanoak nabarmendu zituen. Horiek oinarritzat hartuta, heldutasunean idatzitako lanak argitaratu zituen: Zigorak (1853), Begiespenak (1856), Mendeetako Legenda (1859), Miserableak (1862), Itsasoko langileak (1866), Urte ikaragarria (1872), Mendeetako legenda-ren bigarren eta hirugarren sailak (1877 eta 1883an, hurrenez hurren). Horiek izan ziren 1885ean hil arte idatzi zituen zenbait lan. Bere egunkariak, oroitzapenak eta bidaia-liburuak (1951-1954) ere ez dira ahaztu behar.

VICTOR HUGO ETXEA
Victor Hugo Pasaian egon zenean Pasaiari buruz izan zuen iritzia ez genuen XIX. mende-

ko azken hamarkadara arte ezagutu. Arestian aipatu bezala, idazlearen jaiotzaren lehenengo mendurrenarekin batera, hainbat pertsonen olerkariari buruzko museoa Donibanen sortu zuten. Elkarte nahiz pertsonen original, erreproduzio eta faksimileen bilduma eskaini zuten eta horiek guztiak etxearen gela batean kokatzea erabaki zuten. Garai hartan, Udalak museoa mantendu, etxearen jabetza izan eta bisitak egiteko prestatzeko konpromisoa hartu zuen. 1915ean, etxeak jabez aldatu zuen eta lehenengo guda mundialean murgilduta zenean, alde batera utzi zuten museoa sortzeko ideia. Denbora igaro zen eta etxea Jose de Orueta





jaunaren eskuetara pasa zen. Berak etxerako dokumentazioa eta objektuak biltzearen ardura hartu zuen, 1934an bere semeak, Antonio de Orueta jaunak, etxea jarauntsi zuen arte.

Garai hartan Gilberto Guillaume Reicher idazleak etxea bisitatu ahal izan zuen, eta museo zaharrerako bildumaren hainbat ale jadanik Pasaiaiko Udalaren esku zeudela jakinarazi zuen.

1945ean "Sociedad Vascongana" zeritzanaren batzorde batek Victor Hugo Etxea bisitatu zuen. Antonio Oruetak Victor Hugoren gela bere horretan zuen etxearen gela batean; besteetan, berriz, garai hartako altzariak zeuden Pasaiaiko nahiz portuko oroigarri historikoekin batera.

Victor Hugo Etxea Nazioko Monumentu deklaratu zuten 1964ko urtarrilaren 17an. Beraz, garai hartatik aurrera kultur interesa zuen ondasuntzat jo zuten. Azkeneko hogeita hamar urte hauetan etxearen jabetza Gipuzkoako Kutxak izan du. Pasaiaiko Udalak Kultur Etxe bezala erabili du gutxienez az-

ken hogeitaz, eta egun Oarsoaldea S.A.k du etxea kudeatzeko ardura.

ARGITALPENAK

Koldo Izagirre idazle pasaitarrak Victor Hugok Euskal Herriaz idatzitakoa euskaratu du, eta liburua aurki kalean izango da. Izagirrek 'Les Pyrénées' bidaia-liburuko pasarteak jaso ditu; 1843an Euskal Herrian egindako bidaiari ikusi eta bizitakoak jasotzen ditu, eta besteak beste Pasaiaiko ibilburu irakurri ahal izango dira bertan.

Bestetik, Udalak, Victor Hugok Pasaiari buruz egin zituen deskribapenak hari bezala hartuta, literatur gida turistikoa argitaratzea du helburu. Udalerriko gunerik interesgarrienak nabarmenduko dira. Formatu arineko eskuliburua izango da, bisitariarentzat ezin aproposagoa. Olerkariak egindako deskribapenen aipamenak hitzez hitz jasoko dira, eta horiekin batera udalerriko elementurik aipagarrien argazkiek ere tokia izango dute.

BERREHUNGARREN URTEURRENAREN EGITARUA

ERAKUSKETAK

"Pasaiaiko Badia Atzo, Gaur eta Bihar". Martxoaren 22tik apirilaren 13ra bitartean (inaugurazioa martxoaren 26an), Donibaneko Victor Hugo Etxean, Trintxerpeko Alkateordetzan, Antxo eta S. Pedroko Kultur Etxeetan.

"Ontzi tradizionalak milurteko berriaren aurrean" Maiatzaren 17tik ekainaren 16ra bitartean, Ontziolan.

Azken hamar urteetan bere lanak Victor Hugo Etxean aurkeztu dituzten artistei buruzko atzera begirako erakusketa. Ekainaren 28tik uztailaren 21era bitartean, Victor Hugo Etxean.

"Victor Hugo, kausa handien defendatzailea". Abuztuaren 1etik 31ra bitartean, Victor Hugo Etxean.

Joël Desbouiges-en erakusketa, Irailaren 13tik 29ra bitartean, Victor Hugo Etxean. Victor Hugoren jaioterriko margolaria.

Mikel Dalbret-en erakusketa, urriaren 11tik 27ra bitartean, Victor Hugo Etxean.

BIDEO-EMANALDIAK

Victor Hugo Jersey-n erbesteratuta egon zen garaiko film dokumentala. Horrez gain, argazkilaritzak sorrarazten zion grina ere lantzen du film horrek. (15 min.)

Victor Hugoren grabatuei buruzko film mutua. (15 min.)

Victor Hugori buruzko moldaketa zinematografikoen bideoak ("El jorobado de Notre Dame" edo "Los miserables" izeneko antzeko filmak)

HITZALDIAK

"Pasaia eta Victor Hugo, xarma erromantikoa" deritzan hitzaldi-sorta. Proposaturiko datak: 2002ko apirilaren 23, 24, 25 eta 29a.

ANTZEZLANA


"Pasaian zehar ibilbide erromantikoa udako gau batean Victor Hugorekin" (Victor Hugoren lanari buruzko moldaketa dramatizatu eta antzeztea) uztailaren 25etik irailaren 12ra bitartean dauden zortzi ostegunetan gauz egitea proposatzen da. Euskara eta gaztelania txandakaturik, antzezleri-zerrenda ezagun batek, Victor Hugoren pertsonaia buru duelarik, antzerkiaren bitartez, Pasaian zehar egin daitekeen ibilbide bat aurkeztuko du. Aktore batek Victor Hugoren pertsonaia antzeztuko du eta pertsonaia hori bera izango da Victor Hugoren izenean gida-lanetan arituko dena. Ibilbidean zehar Victor Hugok Pasaian eman zituen egunen eta bere lan ezagunen pasarteak antzeztuko dira, besteak beste, "Pariseko Gure Dama" edo "Miserableak".

MUSIKA

Ohitura denez, Donostiako Musika Hamabostaldia egun batean Pasaian gauzatuko da. Abuztuaren 13an izango da hitzordua. Antolatzaileak, Victor Hugoren lan bat moldatu ostean, interpretatzeko izango lituzketen aukerak aztertzen ari dira.

DATARIK GABEKO BESTE EKINTZA BATZUK

Arkaitz Kano + musika taldea
Erdi Aroko azoka



APIRILA 2002

Hona hemen apirilerako kultur agenda. Eskaintza zabala duzu eskuragarri hilabate guztian zehar. Gogoratu zure elkarte edo lan-taldeko ekintzek ere leku bat izan dezaketela hemen. Animatu eta bidali informazioa!

ERAKUSKETAK

TRINTXERPEN 'PASAIA HIRIA'. VI. ARGAZKI-LEHIAKETAKO LANAK IKUSGAI, TRINTXER KULTURALAK ANTOLATUTAKO ERAKUSKETAN. ALKATEORDETZAN, HILAREN 14TIK 21ERA BITARTEAN.>>

'PASAIA HIRIA'. TRINTXER KULTURALAK ANTOLATZEN DUEN VI. PINTURA-LEHIAKETAKO LANAK IKUSGAI. ALKATEORDETZAN, APIRILAREN 21ETIK 28RA BITARTEAN.>>

DONIBANEN: VICTOR HUGO JAIO ZENEKO BIGARREN MENDEURRENA OSPATZEKO EGITARAUAREN BARRUAN, 'PASAIAKO BADIA ATZO' ERAKUSKETA VICTOR HUGO ETXEAN, HILAREN 14RA ARTE.>>

SAN PEDRON: 'PASAIAKO BADIA ATZO' ERAKUSKETA, APIRILAREN 14RA ARTE, UDAL ARETOAN.>>

ANTXON: 'PASAIAKO BADIA GAUR' ERAKUSKETA, APIRILAREN 14RA ARTE, KULTUR ETXEAN.>>

ANTZERKIA

SAN PEDRON:

SAN PEDRON: 'ÑAQUE, O DE PIOJOS Y ACTORES'. APIRILAREN 21EAN, ILUNTZEKO 20:00ETAN, UDAL ARETOAN, AZAR TEATROAREN ESKUTIK.>>

MUSIKA

ANTXON: MUSIKA BANDAK ANTOLATUTA, MUSIKO-KORAL ASTEA KULTUR ETXEAN APIRILAREN 22TIK 27RA BITARTEAN.

LITERATUR JARDUNALDIAK 'VICTOR HUGO ETA LITERATURA ERROMANTIKOA'



VICTOR HUGO LITERATOAREN JAIOTZAREN BIGARREN MENDEURRENA OSPATZEKO, DATOZEN HILABETEETAN EKITALDI MORDOA ANTOLATUTA DAUDE HERRIAN. APIRILEAN LITERATUR JARDUNALDIEN TXANDA IZANGO DA. JARDUNALDUAK VICTOR HUGO ETXEAN IZANGO DIRA APIRILAREN

>APIRILAREN 23AN, 20:00ETAN: HIZLARIA: ROSA DE DIEGO (EHUKO FRANTSES FILOLOGIAKO IRAKASLEA): 'AURKEZPEN OROKORRA'.

HIZLARIA: LIDIA VÁZQUEZ (EHUKO FRANTSES FILOLOGIAKO IRAKASLE TITULARRA): 'GASTRONOMIA'.

>APIRILAREN 24AN, 20:00ETAN: HIZLARIA: KOLDO IZAGIRRE IDAZLEA: 'KANPOKO BIDAIRIAK PASAIAN'.

>APIRILAREN 25EAN, 20:00ETAN: HIZLARIA: VERONIQUE DUCHE (BAIONAKO UNIBERTSITATEA): 'ESPAINIAR ETA EUSKAL HIZKUNTZAREN ERABILERA VICTOR HUGOREN PIRINIETAKO BIDAIA'.

HIZLARIA: GUY DUREAU (BAIONAKO UNIBERTSITATEA): 'ESPAINIA VICTOR HUGOREN ANTZERKIAN'.

>APIRILAREN 29AN, 20:00ETAN: HIZLARIA: LORETO CASADO (EHUKO FRANTSES FILOLOGIAKO IRAKASLEA): 'OZEANO ETA ITSASOA'.

HIZLARIA: ISABEL MARIA GUZMAN.

zuk zeuk!

ZINEA 'LA MÁQUINA DEL TIEMPO'

PZuz.: Simon Wells. Akt. Guy Pearce, Jeremy Irons, Samantha Mumba. 2002.



Nork ez dauka txikitán ikusitako filmeren baten oroitzenenik? Nork ez dauka aspaldi ikusitako pelikula baten imajinaren bat bueltaka bere buruan, nonbait galduta? Nork ez du pasa gau guztia esnai, telebistan ikusitako zerbaiti 'esker'?

Duela urte asko, haur batek, benetan txundituta utzi zuen filma bat ikusi zuen telebistan, eta bertan azaltzen zirenek, lo hartu gabe utzi zuten gau oso batez ('El Tiempo en sus manos', George Pal, 1960). Urte mordoxka pasata, haurtxo bera heldu bilakatu eta zinemara joan da ilusioz beteta filme haren remake-a ikustera. Ikusitakoak ez ditu haren espektatiba guztiak ase, arratsalde-pasa arunt bat besterik ez.

Hauze izango litzateke niri filme honekin gertatu zaidanaren laburpena. Filme honek duen alderik aipagarriena, gaur egungo ekoizpen askotan gertatzen den bezala, teknologia berrien laguntzaz sortutako efektu bereziak da.

Protagonistak, iragana aldatu nahi du (bere emaztegia hil egiten dute), baina ezinezkoa zaio. Horrela, etorkizunera joaten da galdera honen funtsaren bila: zergatik ezin dut iragana aldatu? Neure ustez, aurreko bertsioak ikusiak badauzkazu, ez du filme hau ikustera joateak merezi.■



IRAITZ IGARTZA

FANXINEA IZU GIROA

IZU GIROA

Punk eta hardcore euskarazko fanxinea



NCC - Marky Ramone - Jetsex - Suediar hardcorea (82-85) - Bonzos - Government Fury Kills - Millenium Project - Oxyomorón - 301 Izquierda...

Jaun andreok, "Izu Giroa" heldu da parte txarreko auzogune, tabernazulo eta estoldetara. Lehendabiziko euskara hutsezko Punk fanxinea hementxe dugu!


Editorialean dioten bezala Punkaren muga zabalaren barruan dagoen guztia interesatzen zaie: Detroitetik Washingtonera, punk-rocketik hardcorera, eskola berri eta zaharra, talde berriak eta aspaldi desagertuak, bertokak zein kanpokoak: Zaratatsua eta basatia bada, eta guitarra ozenak baditu, nahikoa da.

Lehendabiziko zenbaki honetan besteen artean: NCC, Bonzos, Jetsex eta Marky Ramone pelukadun alprojarri elkarrizketak. NCCren kasuan elkarrizketari diskografia komentatua gehitzen zaio. Suediar hardcore 82-85 txostena, kontzertu eta gure bizi-lagunek horrenbeste gorrotatzen dituzten disko zaratatsuen kritikak. Ez da luxurko paperean eta koloretan egindakoa, ez du KD-rik oparitzen, baina guztiz beharrezkoa da. Kontaktua: 10216 P.K. 48007 Bilbo.■



JUANMA ETXEBESTE

MUSIKA THE JAM Paul Weller(kitarra/ahots nagusia), Bruce Foxton(baxua/koroak) eta Rick Buckler (bateria)



The Jam taldea 1973 urtean sortu zen Erresuma Batuko Woken herri langilean,

Taldearen ezaugarriari dagokienean, The Jam-en musikak 60ko hamarkadaren amaieran sortu zen 'mod' mugimenduaren ezaugarri aunitz dauzka, baita hamarkada bat beranduago estatu batuetan sortutako eta britainiarrek bere egin zuten 'punk'-arenak ere, nolabait esateko 'mod' musika landua egiten dute 'punk' mezuekin. Talde honek ez zuen benetako ezagutza lortu 1977an bigarren diska kaleratu zuen arte, eta hortik 1983ra hainbat lan kaleratu zituzten, arrakasta batez ere Erresuma Batuan lortu zutelarik. Gainera, sistemaren aurkako lanean, zehazki Margaret Thatcher ultrakontserbadoren errejimenaren aurka, ziztadak luzatzen ihardun zuten, beti ere musika landu eta elegante bat eginez. Zoritxarrez, sistemak erreakzionatu zuen, eta mezu inozoa lantzen zuten taldeak indartu zituen komunikabideen bidez, adibide garbiena Sting gogaigarriaren Police taldea, bere mezu inozo eta guzti ('Message in a bottle'?!?!).

The Jam, eta batez ere bere burua, Paul Weller, ezinbesteko erreferente bihurtu da 90 hamarkadan Brit-Popa deritzon olatuan murgildu ziren taldeentzat (Oasis, Ocean Colour Scene, Blur...) batez ere musikari dagokionean. Mezuan, zoritxarrez, ez.■



UNAI MAYO